

Ekonomia Solidarioko Emakumeen Nazioarteko Foroan¹

bildutako emakumeok honako hau adierazten dugu:

***Alternatiba ekonomikoak eraikitzeko ekarpen handiak egiten ditugu,
baina matxismoak, arrazakeriak eta logika kapitalistek estaltzen dituzte:***

Gure erakunde eta enpresetan administrazio-zereginak daude, logistikoak, harremanen edo zaintzen arlokoak, eta jarduera horiek guztiak ezkutuan geratzen dira edo ez dira aitortzen jendaurrean hitz egitea edo maila politikoan eta/edo instituzionalean harremanak izatea adina. Gutxiago balioesten dira, gure kulturen errotuta baitaude estereotipo matxistak, klase eta arraza arloko aurreiritziak eta joera produktibistak eta kapitalistak. Baina lan hori gabe (administrazioakoa, logistikoa, harremanena) gure jarduerak ez luke iraungo.

Ekonomia Solidarioari ekarpenak egiten dizkiogu emakumeok, esperientzia eta "pribatuaren" balioak eskaintzen dizkiogu, eta komunitatearen dimentsioa eta bizitza zaintzea sartzen ditugu gure proiektuetan:

- Balioak, jarrerak eta egiteko moduak eskaintzen ditugu, eta enpatia, sentsibilitate, malgutasun, egokitzeko gaitasun eta adostasunera iristeko gaitasun handiagoa izaten dugu, emozionalari arreta handiagoa eskaintzen diogu, gure erakundeetan gertatzen diren harremanak gehiago zaintzen ditugu.
- Komunitateko bizitza zaintzen dugu. Beharrak komunitate-ikuspegiarekin asetzea izaten da gure xedea, inguruarekin konprometituta gaude eta giza hauskortasunaz eta gure eko-mendekotasunaz ohartzen gara.
- Beste esanahi bat ematen diegu eraginkortasuna, errentagarritasuna, aberastasuna... hitzei, monetaz edo ekonomiaz haragoko esanahia baitute.

***Zailtasunak eta egiturazko oztopoak ditugu erabakiak
hartzeko prozesuetan parte hartzeko:***

Gure partaidetzako espazioetan emakumeak besterik ez dauden arren, ez daude prest lengoia guztiak, adierazteko eta komunikatzeko modu guztiak barne hartzeko. Askotan ez ditugu identifikatzen kalitatezko partaidetzarako berariazko zailtasunak, ez dugu aztertzen gure prozedurak nola hobetu honakoak kontuan izango dituen begirada interseksionalarekin: adina, kapital sinbolikoa eta kulturala, hizkuntza, migratzaile izatea eta abar.

Partaidetzako gune horietan gutxiespena egoten da batzuetan, segurtasun gabezia sortzea eta eragina murriztea beste helbururik gabe: emakumeen hitza sistematikoki ez errespetatzea, erantzukizuneko postuetan emakumeak zigortzea haien gaitasunak zalantzan jarriz, gure itxurari, sexualitateari edo genero-identitateari buruzko txisteak eta aipamen desagokiak edo infantilizatzen duten eta profesionaltasuna kentzen duten adierazpenak, besteak beste.

Zailtasun horiek gune mistoetan gertatzen diren banako arazoak direla uste izaten dugu. Baina kultura heteropatriarkalaren ondoriozkoak dira; balio- eta sineste-sistema batek indartu egiten ditu eta eutsi egiten die genero arloko desberdinkeria eta dinamika horiei, eta denok errepikatzen ditugu, ohartuta edo ohartu gabe.

Zaintzeko erantzukizunak eta genero-estereotipoek eraikitzen dute “kristalezko sabaia” eta “zoru itsaskorra” eta nekeza izaten da emakumeok buruzagitza horietan jardutea eta erabakiak hartzen diren postuetara iristea. Eta iristen garenean, itun patriarkalak identifikatzen ditugu, ezkutuko botere ikusezinak, eta horiek dira informazioa nahieran erabiltzen dutenak, ezarritako bideetatik kanpo erabakiak hartzen dituztenak, anaidi maskulinoko logikak erabiliz, besteak beste. Itun patriarkal hori apurtzea ere gure esku dago.

Eskema klasikoan sartzen ez diren buruzagitzak errebindikatzen ditugu, harremanak lankidetzan gehiago oinarritzeko joera dutenak.

Eraldaketa zehatzak eskatzen ditugu gure erakundeetan:

- Ohartu daitezela genero-harremanak eta dinamika heteropatriarkalak direla nagusi; barne-eraldaketa behar dutela, desberdinkeria horien oinarrian egon daitezkeen sinesteak eta usteak zalantzan jartzeko. Eta hori guztia proiektuetako partaide garenon erantzukidetasunetik, aldaketa pertsonalik gabe aldaketa kolektiborik ez dagoela gogoan izanda.
- Emakumeen eskubide politikoen aitortza eta erabilera sustatzea berdintasun- eta parekotasun-testuinguruetan eta indarkeriarik gabeko testuinguruetan. Emakumeen gaitasunak indartzeko ekintzak abian jartzea. Gu politizatzea bideratutako prestakuntza, indartutako trebeziak eta gaitasunak erabil ditzakegun praktika seguruko guneak, emakumeok prestakuntza-prozesuetan sartu ahal izateko laguntzak.
- Tresnak eta guneak sortzen laguntzea emakumeei (eta arautik kanpoko “beste” horiei) entzuteko, baloratzeko eta seguru eta zainduta sentitzeko.
- Lengoaia eta irudiak zaintzea, genero-estereotipoak ez erreproduzitzeko.
- Laneko inguru seguruak eta indarkeria matxistarik gabekak bermatzea, protokoloak sortuz eta indarkeria matxistei erantzunak sistematizatuz. Sotilenekin eta ikusezinenekin hasi eta sexu-jazarpenarekin eta jazarpen sexistarekin lotutako jokabideetara arte.
- Gure erakundeetako erabaki-organoetako emakumeen hazkundera eta ahalduntzea sustatzea.
- Emakumeen arteko ituna eta ahizpatasuna sustatzea. Proiektuan bertan, ekimenen artean edo inguruko erakunde eta sare feministekin.
- Elkartzunezko ekonomiatik emakumeen indartze ekonomikoa sustatzea. Enpleguak baldintza duinetan lor ditzatela sustatzea eta haien proiektuak abian jartzeko finantzaketa-bideak eskura izatea bultzatzea.
- Ekoizpen-arloak eta erreprodukziokoak duten harreman estua eta dinamikoa onartzea eta kide emakumezkoek proiektuen buru izan daitezzen eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte har dezaten egin behar izaten dituzten lanaldi bikoitzak eta hirukoitzak kontuan izatea, salatzea eta esku hartzea.

1. Ekonomia Solidarioko Emakumeen Nazioarteko Foroa ALBOAN GGKEk eta REAS Euskadik - Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak- abian jarritako jarduera bat da eta Euskal Herriko, Espainiako eta Latinoamerikako emakumeok hartu dugu parte. Hiru lan-saioren bidez erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko ditugun zailtasunak aztertu ditugu, alternatiba ekonomikoak eraikitzeko emakumeok egiten ditugun ekarpenak ikusgai jarri ditugu eta ahalduntzeko banako eta taldeko estrategiak identifikatu ditugu.